

Enpresagintza Fakultateak bere Bidasoako kanpuseko Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Lizentziaturako eta Diplomaturako ikasleei diplomak entregatu dizkie.

2011/05/18

Maiatzak 13, ostiralez, gure Bidasoako kanpusean graduaturiko ikasleei titulu akademikoak entregatu genizkien. Horietatik Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Diplomaturan titulatuak eta Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Lizentziaturan graduatuak izan genituen. Diplomen banaketa ekitaldia FICOBAn egin zen arratsaldeko 18:00etan, bertan berrehun pertsonatik gora gerturatu zirelarik.

Diplomak entregatzeko ekitaldi akademikoan Enpresagintza Fakultateko dekanok Lander Beloki eta Alianzoko zuzendari José Antonio del Moral izan ziren. Azken honek "Nire esperientzia ekintzaile gisa" hitzaldia eman zuen. Bertan Aitor Urzelai, MIKeko zuzendaria, eta Mikel Mesonero, koordinatzaile akademikoa, ere izan genituen. Amaierako ekitaldia, berriz, Mondragon Unibertsitateko errektore Iosu Zabalaren esku izan zen.

Argazki gehiago ikusgai flickr-en:

<http://www.flickr.com/photos/enpresagintza>

Irakurri Jose Antonio del Moral-ek idatzitako post-a:

<http://cybereuskadi.com/los-futuros-emprendedores-de-mondragon-unibertsitatea>

Honi buruz notizia Diario Vascon:

<http://www.diariovasco.com/v/20110517/bidasoa/nuevos-diplomados-licenciados-campus-20110517.html>

Eta bideoa ikusi nahi baduzu Vimeo-n.

<http://vimeo.com/24720661>

